

Risky eta bere lagunak



Testua: Joxemari Iturralde Marrazkia: Mattin

(VI) Abentura hasi gabea

Oso haserre zegoen Gomax, haserre benetan, mutil venezuelarrak egin zionagatik. Horregatik —nik oso ondo eta aspalditik ezagutzen dudalako Gomax— banekien zerbait egingo ziola honek, zerbait ariko zela prestatzen haren kontra, eta zerbait hori agudo, lehen baino lehen, saiatuko zela gauzatzen. Eta hori jakin nuen, segurtasun osoz, atzo arratsaldean. Klasetik atera ginen eta beti bezala ibai ondoan dagoen parkera joan ginen jolastera koa-drilako lagunok. Jolastera eta zuhaitzetara igotzera. Bai, azkenaldi honetan zuhaitzetara igotzen baikara, txorikumeak ikustera. Zuhaitz puntan dagoen kabiarraino igotzen gara ikusteko zenbat txoritxo dauden, zenbat arrautza, eta abar... Orduan, gurekin etorri beharrean, ikusi nuen Gomaxek etxerako bidea hartzen zuela.

—Zer, Gomax, ez al zatoz gurekin?

—Ez, ez, Risky, gaur ez. Lan handia daukat-eta!

Ni harrituta geratu nintzen, benekielako eta badakidalako Gomaxek lana aipatzen duenean ez duela esan nahi klaseko lana, irakasleak bidalitako lana... beste zerbait baino.

Horrela, gaur goizean, klaseak hasi baino lehen denok ikusi dugu Gomax zetorrela klaseko motxilarekin eta eskuan poltsatxo bat zekarrela.



—Gomax, zer daukazu hor!

—Hor? A, ... ezer ere ez! Beno, bai, azukre pixkat sukaldaritzarako. Jendea ez da harritu hori entzutean, aurten sukaldaritza hasi baikara ikasten, nola prestatu afaria, nola egin pasteltxoak, eta abar. Baina ni bai, ni oso harrituta geratu naiz, bai baitakit Gomaxi sukaldaritza ez zaiola ezertxo gustatzen. Orduan, klaserako eskailerak igotzen

ari ginenean berak esan dit belarrira, inork ez entzuteko moduan: «—Risky, ez esan inori baina azukre hau da Jose Lorenzoren motorrean sartzeko. Badakizu, gasolinaren depositoa azukrea bota... eta akabo venezuelarraren motorra, je, je! Ikusiko duzu zer festak egingo ditugun errekreo garaian, bai horixe, je, je!».

Baina ez, ez da ezer gertatu: gaurkoan Gomaxek ez du zortetik izan bere gaiztakeriarako, eta bai ordea, Jose Lorenzo Bienzobasek, hau libratu egin baita! Errekreoa baino lehen sukaldaritza klasea izan dugu eta irakaslea sartu bezain agudo Maria Eugenia deitzen den neskato kuxkuxero eta lotsagabea altxatu da eta esan dio irakasleari: «Gaur Gomaxek ekarri du azukrea klasean erabiltzeko», eta eskuarekin seinatu du poltsa zeukan lekuraino.

—Ederki, eskerrik asko —esan dio irakasleak Gomaxi. —Ea, ekarri hona azukre

poltsa hori segituan erabiliko dugu-eta!

Eta hortxe zapuztu da berehala Gomaxen gaurko abentura... hasi baino lehen!

Horoskopoak



aries

martxoak 21 - apirilak 20

Amodioa: Non duzu burua?

Paga: Pirata dirudizu.

Osasuna: Buruko mina. Zer dela eta?

Ikasketak: Beti, arbelara begira, beti.



taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Amodioa: Lelotuta zaude.

Paga: Pixkanaka aberats egingo zara!

Osasuna: Afaldu ondoren, esne beroa.

Ikasketak: Non dago Konstantinopla?



gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Amodioa: Galdetu al diezu izarrei?

Paga: Poltsikoa beteta daukazu.

Osasuna: Estresa? Aitzakia hutsa.

Ikasketak: Non duzu agiria?



cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Amodioa: Zu bai zarela Bilintx!

Paga: Bilatu ohe azpian.

Osasuna: Esan ezazu trinkete.

Ikasketak: Goizago jaiki behar duzu.



leo

uztailak 21 - abuztuak 23

Amodioa: Gogaikarria zara!

Paga: Ez etsi, eta eskatu.

Osasuna: Sendatu? Hobe zaindu.

Ikasketak: Zer duzu esku artean?



libra

irailak 24 - urriak 23

Amodioa: Eztei bidaian pentsatzen?

Paga: Alderaketak txarrak dira.

Osasuna: Noiztik zaude horrela?

Ikasketak: Saiatuko bazina...



scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Amodioa: Denek dakite jada.

Paga: Liburuak erosteko bakarrik.

Osasuna: Hobera egiten ari zara.

Ikasketak: Zergatik ez gehiago irakurri?



sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Amodioa: Noiztik maite duzu?

Paga: Irabaziak aurreztu.

Osasuna: Begiak altxor bat dira.

Ikasketak: Komeni zaizu erreparatzea.



capricornius

abenduak 24 - urtarrilak 20

Amodioa: Izan zaitez atsegina.

Paga: Gaztea zara lanean aritzeko.

Osasuna: Kontuz goxokiekin.

Ikasketak: Aste ona datorkizu.



aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Amodioa: Gezurrik ez duzue behar.

Paga: Ez al dakizu gehitzen?

Osasuna: Mandarinak jan itzazu.

Ikasketak: Lehenbailehen hastea hobe.



piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Amodioa: Eskola irteeran duzu aukera.

Paga: Erosi besteentzako opariak.

Osasuna: Berriz? Hurrengoan zaindu.

Ikasketak: Pasa da okerreana.